



**GONZÁLEZ ALCANTUD, José Antonio**  
**La ciudad vórtice. Lo local, lugar fuerte de la memoria en tiempos de errancia**  
 Rubí (Barcelona) : Anthropos, 2005. - 189 p. ; 24 cm. - ISBN: 84-7658-723-6

José Antonio González Alcantud, “Ángel Ganivet” Etnología Ikerketa Gunearen sortzaile eta zuzendaria izandakoa (1990-2003), gaur egun Granadako Unibertsitatean Antropologia irakasle titularra eta Andaluziako Etnologia batzordeko presidentea da. Ikerketa ugarien egilea da, horien artean azken hauek azpimarratzekoak dira: *Lo moro. Las lógicas de la derrota y la formación del estereotipo islámico* (2002), *El rapto del arte. Antropología cultural del deseo estético* (2002) eta *Andalucía: deseo y negación* (2004).

Aurkezten den liburu honetan *tokiko* interpretazio berria azaltzen da, tokiko interpretazioa kosmopolitizatzeko garai honetan hain zuzen ere. Granada, hiri andaluziarra, 1492ko konkistaren aurretiko momentuetatik urakan zurrunbiloa bihurtuta, eta, gaur egun *per capita* errenta sailkapenean azkeneko postua betetzen duen Espainiako probintzia, gatazkaren hausnarketa tresna erabiliko du egileak. Gizarte zientzietako ekarpen metodologiko interesgarria eskainiko digu.

Globalizazioari, interdependentzia eta kultura homogeneizazioari erantzuteko, *tokiaz* hitz egiten da bertako ikuspegi batetik; hau da, tokiari dagokionaren galerari aurre egiteko erantzuna bezala. “Identitatea”, “berezkoa” edo antzeko esamoldeak erabiltzen dituztenek bertako izatearen konplexua berea egiten dute, eta tokiko gertaizun interpretazioa bereganatu; interpretazio horren erabateko jabeak izendatzen dira.

Liburu honen abiapuntuak tokia eta kosmopolita kontzeptuen arteko kontrakotasuna apurtu, eta hiriaren interpretazioaren ikuspegi hurbila eta urruna bilatu nahi ditu.

Hiria hausnarketa iturri bezala aurkezten digu. Noraezeko garai honetan erabiltzen diren giltzarri hitzak (mugak, aniztasun kulturala, toki-ezak, nahasketa, niaren hilketa, ea.) noraezeko garai hori azpimarratzen duten diskurtsoak dira. Honi aurre egiteko tokiaren ardatzean kokatu gaitezen berriz ere proposatzen du. *Tokia* mantenduko da eta globalizazioaren diskurtsoa zahartu egingo da.

Globalizazioak edo mundializazioak ez du eraginik izan *tokian*, honen noduluek hiriaren interpretaziorako zutabe sendoak izaten jarraitzen dute, eta zutabe horiek noraezeko sekretua eta hiriaren hasiera dira. Tokiko historian eta ez beste inon gertatzen dira *zentzuaren* guda garrantzitsuenak; zentzua ekintza eta pentsamendu kolektiboa gidatzen duen teleologia-maila bezala ulertuta. Zentzua guda bihurtu daiteke tokiko gunean.

Hirian gertatzen diren gudek dimentsio semantikoa dute eta hiriko sarean islatzen dira. *Sorrera-mitoak* gatazka gauzatzen den eremu pribilegiatu bat dira, horien kudeaketa boterearen zutabe baten zati garrantzitsu bat direlarik. Legitimitate honen hedapena boterearen eraketa atal bat da. Oroimena izango da herentziaren ilusioa sortuko duena.

Esango digu, eliteak direla oroimen-kolektiboaren gordetzaileak. Eliteen eta oroimenaren arteko loturak aztertzea izango da beraz zientziaren eginkizuna hiriko errealtatea ezagutzea nahi badugu, batez ere, mediterraneoko gizarteetan, non pertsona gorenak eta historia eskutik helduta doaz hiriko sorrerari, iraganari eta orainari zentzua emateko.

Hiria, garai historiko guztietan, egitura hierarkizatua da. Irudi hau eta “hiri platoniko” baten edozein proiektua aurrez aurre jartzen ditu. Hiria gatazka-gunea da izaeraz. Granadako Albayzin auzoaren adibidea esanguratsua da; armonia, paradisu-mittoa eta gatazka-errealitatearen arteko disoziazio adierazgarria da. Aztertzen den hiriak bere heroiak zalantzan jartzen ditu, eta galdera asko jaurtitzen ditu bere sorrera-mitoen inguruan. Mitoak arrakastarik gabekoak izan daitezke ere, eta irteera gabeko bide batera eraman.

Mitoen “hutsegitea” interesatzen zaio, honek adierazten baitigu subjektu kolektiboaren izaera eta ez mitoak berak. Oroimena apurtuta dago, oroimen-kolektiboa blokeatzeko isilune guneak sortu baitira.

Tokiko heroiaren narrazio eraiketa eta adierazpenen onarpen publikoa tokiko mitoaren hedapen adibide esanguratsuenak dira. Baina adierazpen esanguratsu hauetan, mitoaren kontrolak zentzu-kolektiboaren elite kudeatzaileen nahietatik ihes egiten du. Mitoa zentzu-kolektiboaren elite kudeatzaileen atzetik sortu da; hiriak gatazka izaera azaltzen du. Beraz, lan honetan aipatutako heroiak ez dira izango inoiz paradisu bateko heroiak, baizik eta “hiri-izakiaren” kondairazko pertsonifikazioak.

Hiriari luzatzen zaion begirada idealizatuak benetako gatazkak ezkutatzen ditu. Edozein idealismo baztertuta “tokiko identitatea” nola sortzen den galdetu behar dugu; nortzuk sortzen dute, nola zabaltzen da oroimen historikoa, zeintzuk dira honen aukeraketa mekanismoak, eta zeintzuk dira kudeatzen dutenak. *Tokiko identitatearen* kontzeptua murriztailea da, oroimena bere osotasunean ez baitu kontutan hartzen.

Zentzu-kolektiboaren eraketa eta kudeaketa gutxi aztertu dela dio egileak. Antropologiak azterketa gune zabala dauka, erabateko isilune guneak eta hiperbole guneak aldizkatuz, patrizioek lortu duten oroimen-lapurreta azaltzeko.

Beatriz Akizu Aizpiri